



LANBIDE HEZIKETARAKO AHOLKU DIDAKTIKOAK

Egile-eskubideei buruzko gaitasunak hiru unitatetan banatuta daude materialean: egile-eskubideei buruzko ezagutzak, material-mota desberdinen erabilera, eta informazio-bilaketa eta irakurmen kritikoa. Egile Eskubideen Ikasgelan trebetasun bakoitzerako ikaskuntza-materiala eta trebetasun horiek lantzeko ariketa ludikoak daude.

Aholku didaktikoak eskola hauetan erabiltzeko dira egokiak, adibidez: hizkuntza, informazio-teknologiak, komunikazioa eta gai profesionalak. Aholku didaktikoak bere horretan erabili daitezke, edo dagozkien zeregin edo materialen laburpenak har daitezke, irakaskuntza-egoera jakin bakoitzerako. Ikaskuntza-proiektuetan, adibidez, iturriak aipatzeko gidara edo bideo-proiektuaren laburpena itzul zaitezke, nahi izanez gero.

Material-multzoa nor bere kasa ikasiz osa dezake, Egile Eskubideen Ikasgelan dauden autoikaskuntzako jarraibideen laguntzarekin.

1. Egile-eskubideei buruzko ezagutzak

	HELBURUA ETA EDUKIAK	EGILE ESKUBIDEEN IKASGELAKO MATERIALA	AHOLKU DIDAKTIKOA
EGILE-ESKUBIDEAK	<p>Egile-eskubideak egoera praktikoe-tan ulertzea, dauden argitalpen-me-todo eta baimenen ikuspegitik.</p> <p>Egile-eskubideei buruzko oinarritzko kontzeptuak jakitea.</p>	<p>Egile-eskubideen gida</p> <p>Bideoa: Zer dira egile-eskubideak?</p> <p>Egile-eskubideei buruzko materia-la: lan sortzailea babesten dute</p> <p>Galdetegia</p>	<p>Eskolaren hasieran egile-eskubideei buruzko oinarritzko kontzeptuak azal-tzea: egiletza, originaltasun-atalasea, egile-eskubideen babesia.</p> <p>Elkarrekin eztabaidatzea zergatik den garrantzitsua egile-eskubi-deak errespetatzea. Galdetegiaren jolasarekin egile-eskubideei buruzko ezagutzen azterketa egin daiteke.</p> <p>Galderei buruz pentsatzeko, ikas-leek hemen dauden bideoetan bila dezakete informazioa: Egile Esku-bideen Ikasgelan, egile-eskubideen gidan eta auladederechodeautor.org webgunean.</p>
BESTE BATZUEK SORTUTAKO EDUKIA ZABALTzea	<p>Intimitatea eta ohorea babestea zer den ulertzea. Egile-eskubideek lan sortzailea babesten dutela ulertzea. Egile-eskubideak hautsiz gero zer erantzukizun dituzten ulertzea. Babestutako obrak erabiltzeko zer baimen edo lizentzia dauden jakitea.</p>	<p>Egile-eskubideen gida</p> <p>Laburpenak: Egile-eskubideak, Internet eta sare sozialak Argazkiak Proiektua Bideo-proiektua</p> <p>Proiektu bat egiteko materiala</p> <p>Bideoa: Obrak erabiltzea</p>	<p>Ikasteko zereginerako funtsezkoak diren baimen eta lizentzien aukerak ezagutzea. Ikasleek, talde txikitik, beren ikasteko zereginerako baimen eta lizentzien edukia ikas dezakete, eta gero taldekideei erakutsi.</p> <p>Irudiak hartu eta trukatzearekin eta intimitatearen eta ohorearen babe-sarekin zerikusia duten oinarrietan trebatzea.</p>
NORBERAREN EKOIZPENEN ETA BANA-KETAREN EGILE-ESKUBIDEAK	<p>Beren lanetan egile-eskubideak erabiltzen jakitea.</p> <p>Beren obretan beste pertsona batzuek sortutako eduki eta obrak erabiltzen jakitea, betiere egile-es-kubideak errespetatuz. Egile-eskubi-deek lan sortzailea babesten dutela ulertzea.</p>	<p>Egile-eskubideen gida</p> <p>Laburpenak: Proiektua Bideo-proiektua Zure lanak – zure eskubideak Erabilera pribatua</p> <p>Bideoa: Zer dira egile-eskubideak?</p>	<p>Elkarrekin eztabaidatzea zer esan nahi duen «Ni, egile» esaldiak, hau da, sormenezko ekoizpenak. Zer eskubi-de ditut nire obraren gainean?</p> <p>Norberaren ekoizpenetarako fun-tsezkoak diren baimen eta lizentzien konponbideak ezagutzea.</p>

2. Material-mota desberdinak erabiltzeko trebetasunak

	HELBURUA ETA EDUKIA	EGILE ESKUBIDEEN IKASGELAKO MATERIALAK	AHOLKU DIDAKTIKOAK
NORBERAREN EKOIZPENETAN MATERIAL DESBERDINAK ERABILTzea	<p>Ikasteko zereginetan testua, irudia, musika, soinua, bideoak eta horien guztien konbinazioak erabiltzen jakitea, betiere egile-eskubideek errespetatuz. Jatorrizko irudi eta obrak egilearen eskubide moralak errespetatuz zenbateraino aldatu daitezkeen ulertzea.</p> <p>Iturri desberdinak erabiltzen eta aipatzen jakitea.</p>	<p>Laburpenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Proiektua Bideo-proiektua Argazkiak <p>Laburpenak egiteko makina</p> <p>Iturriak aipatzeko arauak</p> <p>Bideoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> Obrak erabiltzea <p>Proiektu bat egiteko materiala</p> <p>Egia ala gezurra jolasa</p>	<p>Proiektu pertsonala egiten hasi aurretik, kontsultatu, Egile Eskubideen Ikasgelan, proiekturako garrantzitsuak diren laburpenak eta obren erabilerari buruzko bideoak. Obren erabilerarekin zerikusia duten oinarrizko gaiak elkarrekin berrikus daitezke (adibidez: egile-eskubideen sinboloak, erabilera-lizentziak, iturrien aipuak eta erreferentziak).</p> <p>Laburpenen makinarekin obren eta iturrien erabilerari buruzko orientazio espezifikoak egin daiteke, azken emaitza zein den.</p> <p>Beste ezer baino lehen, erreferentzia zuzenak eta zeharkako erreferentziak zer diren argitzea. Iturri desberdinak aipatzeko erreferentzia-metodoak ikastea, iturriak aipatzeko gidaren laguntzarekin. Irakasleak aurrez bila ditzake eskolaren gairako edo ikasteko zereginerako egokiak diren iturriak, edo ikasleei eskolan bila ditzaten eska diezaieke. Ikasleek iturri horien erreferentziak egingo dituzte, iturriak aipatzeko gida erabiliz.</p> <p>Obrak erabiltzeko trebetasuna Egia ala gezurra jolasarekin landu daiteke.</p>

3. Informazioa bilatzeko trebetasunak eta irakurketa-gaitasun kritikoa

	HELBURUA ETA EDUKIA	EGILE ESKUBIDEEN IKASGELAKO MATERIALAK	AHOLKU DIDAKTIKOAK
INFORMAZIOA BILATZEKO TREBETASUNAK	<p>Norberaren lanbide-eremuko informazio egokia hainbat iturritatik eskuratzen jakitea. Gairako kontzeptu nagusi egokiak aurkitzea. Liburutegiko bilaketa-tresnak eta informazioa berreskuratzeko sistema egoki erabiltzen jakitea.</p> <p>Iturriak jardunbide egokien arabera aipatzen jakitea.</p>	<p>Norberaren ekoizpenerako ibilbideko materiala</p> <p>Laburpena: Iturri bateko testua aipatzea</p> <p>Materiala: Aipuak</p> <p>Iturriak aipatzeko arauak</p> <p>Bingo-jolasa</p>	<p>Nork bere ikasteko zeregina gauzatu aurretik, elkarrekin eztabaidatzea ikasteko zereginerako iturri gisa zer testu-mota erabil daitezkeen, testu horiek non aurkitu daitezkeen, testuak errazago nola bila daitezkeen eta informazioa bilatzeko zein bilatzaile erabil daitezkeen.</p> <p>Eskolan, elkarrekin landu ditzakete informazio-bilaketa edo ikasteko zereginarekin zerikusia duten gaiak. Praktikak lehiaketa moduan egin daitezke: ea behar den informazioa nork aurkitzen duen azkarren. Adibidez, irakasleak eskola bateko gaiarekin zerikusia duten galderak egin ditzake, eta ikasleek ahal bezain azkar erantzun behar dituzte.</p> <p>Nork bere ikasteko zeregina egin aurretik, norberaren ekoizpenerako ibilbideko materiala eta iturriak aipatzeko gida elkarrekin erreparatzea. Erreferentzia zuzenak eta zeharkako erreferentziak zer diren argitzea. Iturri desberdinak aipatzeko erreferentzia-metodoak ikastea, iturriak aipatzeko gidaren laguntzarekin.</p> <p>Bingo-jolasarekin informazioa bilatzeko ezagutzen azterketa egin daiteke.</p>
ITURRIAK KRITIKATZEKO TREBETASUNAK	<p>Iturrien fidagarritasuna ebaluatzen, bilaketen emaitzak kritikoki aztertzen eta gaiari buruzko ikuspegi desberdinak aukeratzen jakitea.</p>	<p>Norberaren ekoizpenerako ibilbideko materiala</p>	<p>Irakasleak edo ikasleek eskolako gaiarekin edo ikasteko zereginarekin zerikusia duten iturri desberdinak bila ditzakete. Adibidez, bizpahiru iturri: lehena dagokion zereginerako fidagarria eta egokia izango da; bigarrena fidagarria baina garrantzi gutxikoa; eta hirugarrena ez da izango ez fidagarria ez garrantzitsua. Testuekin trebatu ondoren, elkarrekin eztabaidatu dezakete nola jakiten den iturriak fidagarriak edo egokiak diren eta nondik datorkien iturriei fidagarritasunik eza.</p>

4. Egile-eskubideen inguruko trebetasunak menderatzea

	HELBURUA ETA EDUKIA	EGILE ESKUBIDEEN IKASGELAKO MATERIALAK	AHOLKU DIDAKTIKOAK
EGILE-ESKUBIDEEN BURUZKO EZAGUTZEN AZTERKETA	<p>Egile-eskubideak eta intimitatearen eta ohorearen babesa zer diren ulertzea eta argitaratzeko zer baimen eta metodo dauden jakitea, egoera praktikoa desberdinetan. Egile-eskubideei buruzko oinarriko kontzeptuak jakitea.</p> <p>Norberaren lanean material desberdinak erabiltzen jakitea, betiere egile-eskubideak errespetatuz.</p>	<p>Egile Eskubideen Ikasgelako material guztia</p> <p>Trebetasunak lantzeko jolasak:</p> <p>Bingoa, Egia ala gezurra eta Galdetegia</p> <p>Azken azterketa</p> <p>Inprimatzeko diploma</p>	<p>Lehenik eta behin, egile-eskubideei buruzko ezagutzak lantzeko hiru jolas egiten dira eta, gero, ikasleek azken azterketan erakuts dezakete zer trebetasun ikasi dituzten. Ikasleek azken azterketa beren kasa ere egin dezakete.</p> <p>Galderei buruz pentsatzeko, ikasleek Egile Eskubideen Ikasgelan eta aula-dederechodeautor.org webgunean dauden materialetan bila dezakete informazioa.</p> <p>Behin azterketa gaindituta, ikasleek ziurtagiri bat inprimatu ahal izango dute, egile-eskubideen gainean dituzten ezagutzen frogagiri gisa.</p>